

Nafarroan 1934-ko Urriaren Iraultzari Buruzko Zertzelada Batzu

EMILIO MAJUELO

SARRERA

1934-ko urrian Nafarroan izandako gertaera iraultzaileek ez dute oraindik historialariengandik behar zuten interesa izan, beharbada Nafarroa politikoki eskualde kolore bakarrekoa bezala hartzen delako, edo eta 1931-an nafar eskuindarren koalizioak hauteskundeetan ateratako gehiengoa eta 1933 eta 1936-an lortutako gehiengo absolutoagatik. Koalizio honetan karlistak nagusiak ziren. Dena den, II. Errepublikari buruzko lan orokorretan eta urriko iraultzari buruzko lan monografikoetan, ez dira Nafarroan garai horretan izandako garrantzizko gertaerak biltzen.

Nafarroan II. Errepublikan izandako gatazken garrantzia, garai hartako estatuko historian baino gehiago probintzia bertako historia dinamikoan aurkitzen da, ahaztu gabe gatazka hauek 1936-ko otsailatik aurrera karlisten eta militarren intsurrekzioaren prestakuntza izan zuten eragina. Dena den maila estatal batetan ulertu behar da hemen izandako konfliktibitatea.

Lantxo honek ezagutu arazi nahi ditu (ez definitiboki, herrietan izandako gatazken datu konkrituak falta bait dira, eta oraindik aztertu gabe daudelako), garai hartako gertaera garrantzitsuenak eta haiei buruzko erreflexio bat egiten lagundu nahi du, ahal den neurrian. (1)

EKINTZA NAGUSIAK

Nafarroako PSOE, UGT eta JJSS-ek urriko greba orokor iraultzailea gertaturik zuten hilabete batzuk aurretik estatu mailan indar politiko hauek eratutako komite iraultzailearekin batera.

Probintzietan komite iraultzaileak antolatzeke, armak lortzeke, e.a., Madriden egin ziren bilera batzuk. Nafarroako delegatu sozialista bezala, Miguel Gregorio Velasco joan zen. Apirilaren hasieran komite iraultzailea eraturik geratu zen Nafarroan, Miguel Escobar, Gregorio Velasco eta Rafael Perez-ek komite honetan parte hartuz, ta erakunde sozialisten errepresentazioa izanik. Hauek egindako informeen arabera, hiriburuan 500 kide eta probintzian beste 500 bat bederen batu ahal zituzten.

Zehazkiago aztertutik, baziren lehenengo mailako 600 bat kide parte hartzen konprometitutik; hirugarren mailako jende asko herrietan eta laugarren mailako 300 pertsonatik gora. (2) Sozialisten ustez, hiriburuko langile mogimendua kontrolatzen zuten sindikatuen bidez, argi serbitzu publikoa, garraioa, estolderia, telefonoa eta hornimendua bereziki, nahiz eta nekazal munduan zuten indarra, hiriburuan zutena bezain garrantzitsua ez izan. Informe honetan, beste indar politiko eta sindikalak nolakoak ziren eta nola zeuden azaltzen da. Indar hauen artean, eskuindarrak ziren hobekien antolaturik zeudenak (diruz eta pertsonaz). A.R.-eko partaideekin harreman onak zituztela ere adierazten digu. Hauek, informeak zioenez, 100 gizon omen zituzten (milizietan zihuraski).

Adostasuna lortu ahal izateko, diputatu sozialista baten presentzia eskatzen zuten. Diputatu hau Acuña zen, Malagan diputatua izanik, komite zentral iraultzaileak bidalita. Eskuindarren prentsak berria ematerakoan bere ekintzaz ezer azaltzen ez duelarik, bere misioa intuitu besterik ez du egiten.

Greba orokor iraultzailea antolatzeke pisu guztia erakunde sozialistek eraman zuten urria arte. Hilabete horietan, komunista eta sindikalistekin harremanak izan zituzten baita ezkertiar errepublikanoekin ere, baina ez zituzten kontutan hartzen erakunde koordinatzaile eta ejekutibo bakar batetan sartzeko orduan.

Beste probintzi eta herrietan eratzen ari zen Nekazari eta Langileen Aliantzak urriko gertaerak pasa arte ez zuen Nafarroan eraginik izan. Erakunde komunistak, PSOE eta UGT-ri eskaturik zien bere erakuntza. Urriak 4-an ez zuten oraindik erantzunik jaso, baina egun horretako gauean, PCE, PSOE eta UGT erakundeetako kide banarekin eraturik geratu zen. Iraultzarako programa bat egin zuten eta Iruñeko CNT elkartu zen Aliantzaren borroka programak irauten zuen bitartean. (3)

Urriak 4-an, arratsaldean, langile piketeak eta talde batzuk mugitzen hasi ziren, D.N. eta E.P.N.-k esaten duten bezala.

Urriak 5-an Aliantzak idatzitako grebarako "deklarazioa" banatu zen. Iruñean grebaren eragina nabaritu zen obra eta tajoetan, taxi eta zerbitzari askorengan. PCE-k zioenez "nahiko intentsu, absolutoa izan gabe". Autobusek eta tranbiek ez zuten goizez funtzionatu, komertzioak lana egin zuen eta Altsaturako trenen zerbitzua mantendu zen. Urriak 6-an, larunbata, nahiko berdintsua izan zen paroa, nahiz eta autobusek eta tranbiek lan egin. Urriak 9-an normalitatearekin lan egin zen.

Altsatsun eta Olazagutian 11 arte iraun zuen grebak. (4) Tafallan udal informe batek zioenez, 138 pertsona izan ziren greba jarraitu zutenak, obra batzutan urriak 8 arte iraunez. (5) Tuteran, 6-an, hauek egin zuten greba: azukregintzak, autobusek, errementeri eta komertzio batzuk, Calonge mosaikoeak, nekazari talde txiki batek, e.a. Modu berean Fitero, Castejón, Peralta, Cortes, e.a-etan paroak izan ziren produkzio sektore batzuetan urriak 5,6 eta 8 arte.

Greba egunetan tailer eta komertzioetan piketeak izan ziren. Honek esan nahi du greba ez zela osotara borondatezkoa izan, nahiz eta zenbait zentro haundietan horrela izan, ez baitdute ezer aipatzen piketez beste kasuetan bezala.

Sabotai eta leherketak izan ziren paroekin batera zenbait herri eta hiritan. Altsatsun urriak 5 eta 6 arteko goizaldean trenaren makina bat deskarrilatu zuten eta merkantzietako 2 bagoi. Agoitzen indar elektrikoko 2 postetan 2 bomba lehertu zituzten eta "El Irati" zentrolean beste bat. (6) Castejonen 5-ean, lehergailu batek "Norte Cia"-ko geltokian makineta ura eramateko zegoen hodian kalteak egin zituen.

Urriak 6-an herri berean, beste lehergailu batek eztanda egin zuen trenbidean. Gauean bomba bat lehertu zen Iruñeko Gaztelu Enparantzan. (7) Urriak 7-an, igandea, 3 artefaktu lehertu ziren Iruñean; "La Jacoba" paseoan bat, Artetako eroate elektrikoan beste bat eta Justizia jauregiko pasabideetan azkena. Urriak 9-an artefaktu txiki bat lehertu zen Zuastiko trenbidean eta Eskiroz ondoan, Noingo arkupeetan, beste bat. (8) Urriak 10-ean Plazaola trenak egiten zuen ibilbidean, 3. kilometroan beste lehergailu bat. Falces-en egun berean argikuntza elektrikoa moztu zen, 11-an, berriz moztu behar izan zuten, zerbitzu horretako transformagailuetan bomba bat lehertzean. Azken lehergailu hauek, tropak eta seguritateko polizia Gipuzkoa eta Bizkaia aldera pasa ez zitezen, jarriak zeuden. Grebak izan ziren herrietan, Cortes, Larraga, Castejon, Peralta eta Tuteran, lehergailuak jartzeaz aparte, argikuntza elektrikoa eta telefonorako linea moztu zuten. Peraltan eta Tudelan, piketeak izan ziren herrietara joaten ziren autobusak geraarazteko, horregatik Goardia zibilak Tuteran kargatu zuen Fueros enparantzan zegoen jendea disolbatzeko.

Cortes-en manifestapena izan zen eta 40 pertsonak (hoietatik 26 armaturik) hartu nahi izan zuten Udaletxea. Bitartean, Mallen izeneko Aragongo herrian, Goardia Zibileko kabo bat hiltzen zen, Vicente Revilla Rodriguez, Tudelan destakaturik, Cintruenigo eta Arguedas-en zeuden beste bi zauriturik izan ziren. Urriak 7 eta 8-an, Lerin, Arguedas eta Altsatsun, manifestapen eta zalapartak izan ziren, eta Emilio izeneko gizon bat erdi hilik geratu zen Altsatsun. (9)

Tafalla, Larraga, Caseda, Peralta, Viana, Caparroso, S. Martin de Unx eta Falces-en, apropos egindako suteak izan ziren 5,6, 7 eta 8-an. Sute hauen helburua, nekazaritzarako makineria eta lastotegiak erretzea zen.

Gertaera guzti hauek, urriaren 5-a eta 12-aren bitartean izan ziren gehien bat. Hauen ondorioz izan zen errepresioak gehiago iraun zuen. Detenitu asko izan ziren, arakaldiak eta salhaketak. "Alianza Obrera y Campesina"-ko komitea detenitua izan zen 6-an, larunbat gauean (10). Urriak 7-an izendatukako beste batek ez zuen funtzionatu PSOE eta UGT-en borondate ezagatik PCE-k zioenez, eta horrela ekintza programatuak ezin ziren, aurrera eramanez. Iruñean, PCE-k zioenez, 60 atxilotu izan ziren, horietatik 8 beren erakundeetan sarturik zeuden eta Valtieran prentsan agertu ez ziren zenbait gertaera izan ziren ere, adibidez 40 atxilotu zituzten, (agian ez hainbeste).

Altsasun egunkariak ziotenez gutxienez 35 izan ziren. Tuteran 7-rako 44 atxiloturik, horietako 26 Cortes-koak izanik, Tuterako "El Eco del Distrito" hamabostkari errepublikarraren zuzendariak pertsonalki azaldu zuen bezala (11); Lehen aipatutakoaz aparte Merinaldean izan zirenak ditugu: Arguedas-en 8, Fiteroren herriko "centro obrero" itxi zenean izandako gertaerengatik 8 eta Castejon-en beste 8 piketeetan parte hartzeagatik, e.a. Tafallan 11 gehi bere merinaldekoak: Peraltan 9, Larragan, Caparroson, e.a. (12) Bi ehunkada nafar preso hauetaz aparte, beste batzuk izan ziren atxiloturik, gipuzkoarrak gehienak Iparraldera iritsi nahian zebiltzalarik.

Nahiz eta nafar atxilotuen kopurua probintziako langile indarretarako inportantea izan, S. Cristobal fuertean atxiloturik izan ziren beste probintzi eta Rioja-koekin konparatuz, gutxiengoa ziren. (13).

Lanetik despedituen datu konkretuak ez ditugu, baina geroago, 1935 urtean zehar langileek bere postuetan birjartzeko egindako eskabideak direla medio, garrantzizko kopurua izan zela ikusten da. Hilario Yaben-ek D.N-ko orrietan gai honetaz bere eritzia ematen du: grebarien buruak bota behar zituzten gertatutakoaren errudunak zirelako.

Prentsak ere jasan zuen errepresioa. Urriak 6-an gabeko 12 etan "estado de guerra" delakoa aldarrikatu zenean prentsarako zentsura jarrita izan zen. Nafarroako UGT-eko "Trabajadores" astekaria 5-ean erretiratu zuten eta azaroak 24-a arte bere argitarapena etendurik izan zen. Tuterako JJ.SS.-eko "J.O.S." hamabostkaria ez zen berriz argitaratuko. Iruñean argitaratzen zen "Amayur" izeneko astekari nazionalista debekaturik izan zen ere.

Militarrek Iruñeko Herriko Etxea, CNT-eko ta Irrati komunistako lokalak, zenbait herritako "centro obrero"-ak (Erriberakoak batez ere) itxi zituzten (32 denetara). (14) Garrantzi handiagoa izan zuen ezkertiar partaideak zituzten 26 udaletxeren suspensioak. (15)

Constantino Salinas-ek, Diputazioren Gestorako presidentordea eta PSOE-ko kidea, "oso lanpeturik zegoela" eta, bere kargoaren dimisioa aurkeztu zuen, horrela ezkertiarrek Probintziako erakunde gorenean zuten ordezkari bakarra galtzen zutelarik.

D.N.-k eta Tudelako Merinaldeko kudeatzaileak, Cándido Frauca, sozialistak kargu publikoetatik jaurtikitzea eskatu zuten, adibidez, Gregorio Angulo, C.A.N.-ko kontseilaria, baina hori Diputazioko kideen artean adostasuna ez izateagaitik, ez zen aurrera eraman.

ALDERDIAK. ONDORIOAK.

PSOE, UGT eta JJSS-en jarrera urriko mogimenduan, antolatzaile eta bultzatzailearen izan zen. Nafarroako ezkertiarren arteko indar haundiena izanik.

Iraultza hilabete batzuk arretik pentsaturik zegoen eta nafar sozialisten komite iraultzailearen informetan ikusten denez, hilabeteak aurrera zihoazen neurrian antolatuz joan zen. Nafarroan jendea izateaz aparte, armak zituzten, sozialistek ziotenez. Apirilan "mota guztietako arma eta munizio ugari" zituztela komunikatzen dute. (16) Poliziak, Iruñeko Garzia Ximenez kalean, bonbak egiteko fabrika txiki bat aurkitu zuen eta 4 pertsona atxilotu zituzten; beharbada Amaro del Rosal-ek aipatzen duen fabrika bera izango da:

"En relación con la producción de bombas(...) existió un dispositivo de distribución en Pamplona, producto de fabricación local y de otros lugares (...)" (17)

Egindako ekintzen koordinakuntzak eta herri ezberdinetan izandako ekintzen antzekotasunagatik, erakusten du iraultzarako komiteak ez zirela Iruñean bakarrik.

Komunistek, gutxi izanik, militantzia zuten lekuetan (Iruñea, Tudela, Valtierra...) aktiboki lagundu zuten mogimendua, baina sozialistekin ez ziren gehiegi koordinatu, azkeneko hauek zeramaten Aliantzen politikarengatik zelata. Nafarroako ezkertiarren batasuna 34-ko urria pasa arte ez zen lortu. Horrek ez du esan nahi sozialistek ez zeukatenik mogimenduaren plangintza prestatu, lehen aipatutako komunisteen informea zioenez. Baina nahiz eta jendea eta armak izan, ez zuten bere helburua lortu, hau da greba izan ta gero, Iruñeako leku estrategikoak jabetu.

Komunisten iritziz armak kontrolik gabe banatu ziren eta agintzeko eza nabaritu zen. Oso dato gutxi dago CNT-k herrietan izandako jokaeraz. Iruñean, iraultzarako programa onartu zuten, programa honek irauten zuen bitartean. Gero izandako errepresioak ez zuen CNT-koekin bereiztasunik egin.

PNV eta STV, izan ziren sozialistekin batera talde ezkuindar eta prentsak egindako kritika haundienak jaso zituztenak. STV-ek greban izandako partizipazioa Tafallan eta Iruñean nabaritu zen batez ere. Kataluniar "separatista" eta sozialista iraultzailekin harremanak zituztela

eta, kritikaturik izan ziren baina bere burua defendatu zuten esanez "ez zutela inoiz bere militanteei deirik egin, talde hoiak egindako ekintzetan parte hartzera". Garbi dago horrela izan zela, baina greba orokorra frenatzeko ez zuten ezer egin. STV, bere alderditik independentea zen ez baitzegoen kontrol zuzen bat, eta are gutxiago konfliktibitate haundiko egoera batetan, langile gehiengoa, UGT zentralak bereganatzen zuelarik. Argudio bera planteatu ahal zaie, euskal nazionalistak iraultzaileen laguntzaileak zirela eta, kritikatu zituztenei. Egun horietako prentsan protagonismo handia izan zuten Nafarroako sindikato profesionaleak, normalitatea lortzeko behar beharrezko oinarritzat hartu zituzten beren buruak eta honela aldarrikatu. Baina 6-an, haiek egindako komunikatuan bere afiliatuak lanera sar zitezela agintzen zuten "ez bazuten alde aurretik hori egin". Honek esan nahi du afiliatu batzuk grebalariekin batera ibili zirela beren nahien aurka.

Euskal nazionalismoak aste batzuk aurretik, munizipal mailan gobernu zentralarekin arazoak bait zituen, eta autonomi mailan mogimendu iraultzaile garailearekin, sortu berria zen eskuindar gobernuarekin baino emaitza obeak espero zituen.

Ezkertiar errepublikanoak mogimenduaren antolatzailearekin harremanak izan zituzten 1934-an zehar. Lehen A.R.-ko 100 gizoneko milizia bat zegoela aipatu da, baina datu batzuk ezik ez dugu bere parte hartzea ezagutzen.

EPN, karlisten egunkaria, eta D.N.-k, nahiz eta haien artean ideologi mailan ezberdintasun sakonak izan, orden soziala eta espainar nazioaren batasuna defendatu zuten. Ezberdintasun horiek nabaritu ziren, Rafael Aizpún Santafe, Justizia ministrari, eta Miguel Gortari, nekazaritzarako idazkariorde, izendatu zituztenean, emandako tratamendu ezberdinetan. UN-koak ziren biak eta CEDA-koak noski. EPN-k "errepublikar" ministrari berriari gogorarazten zion, karlisten botoekin atera zela diputatu.

Euskal nazionalismoari egindako ideologi erasoaldiak oso gogorrak izan ziren, sozialista eta ezkertiar errepublikarrei egindakoak bezalakoak, eta prentsa zentsuragatik ezin zuen inork erantzun, lehenengoak, ezik "La Voz de Navarra" egunkarian eta herabez. Eskuindar bi egunkari horiei LASN astekaria elkartzen zitzaizkien, FASN-eko organoa. Bere artikuluen helburua, UGT ilegalizatzeko une aproposa aurkitzea zen, baita zentral sozialistak "engainaturik" zituen langileen buruak argitzea eta Fronte Sindikal Antimarxista bat eratzea, non sartuko baitziren sozialisten "idealismoak" eta "bioenentziak" defraudaturik zituzten milaka langile.

Nafar langile eta nekazarien mogimenduaren dinamika, bere sustraiak eta bere arazoak, osotara ezezagunak ziren FASN-eko klerikalentzat.

Nafarroako instituzio garrantzitsuenek, Diputazioa, udaletxe haundienak, Aurrezki kutxak, Merkatagintza eta Industriako Kamara e.a., kondenatu zuten mogimendua publikoki, suskripzio eta diru emaitza garrantzitsuak egin zituzten gertaera iraultzaileen biktimentzako.

Nafarroan urriko mogimenduari erantzunik onena eman zion hirietan, industria zuten zonaldeetan (Iruñea, Altsatsu-Olazti, Tafalla ta Tudelan) eta Erriberako herri batzutan. Nahiz eta herri hauetako jarrera oso ongi ez ezagutu, lau hilabete aurretik nekazariak egindako grebarengatik izan zen errepresioak kalte egin izango zuen urriaren gertaeretan. (18)

Erriberako herrietan izandako errepresioa, (langileen lokalak ixtea, udaletxeen suspentsioa) uler daiteke zonalde ezkertiarrenari egindako zigorraren jarraipena bezala.

1935 urtean zahar nekazari mogimenduaren ahultasuna oso nabaria izan zen, eta egorea hau aprobeixatu zuten lurjabeek bere domeinu soziala indartzeko. Udaletxe ezkertiarren suspentsioa grabeago izan zen 1935-ean izandako Diputaziorako diputatuen hauteskundeetan ez baitzuten ziren 7 postuetatik batere lortu. Dena den istilu, epaiketa, denuntziak, e.a. sortu ziren gai honekin hilabete hauetan.

1936-ko otsailatik aurrera ezkertiarren batasuna (ezker errepublikanoak, sozialistak, komunistak, batez ere) inportantea zen, nahiz eta probintzi mailan pisu haundia ez izan, karlisten mogimendu armatua sendoturik zegoen eta eskuindarrek garrantziko instituzioak harturik zituzten. Hau dena ikusita hobeto uler daiteke uztailak 19-tik aurrera gertatu zena.

BND

OHARRAK.-

- (1) Lan hau egiteko, 1934-ko urria eta azaro bitarteko probintzi eta herrietako prentsa kontsultatu da, nahiz eta greba aldeko mogimenduarekin erlazionaturiko beste geroko berriak direla jakin. Aipatutako prentsa hau da: D.N. (Diario de Navarra); E.P.N. (El Pensamiento Navarro); L.V.N. (La Voz de Navarra); LASN (La Acción Social Navarra); B.O.N. (Boletín Oficial de Navarra); Trabajadores; E.D. (El Eco del Distrito); R.N. (El Ribereño Navarro); H.A. (Heraldo de Aragón).
Beste datuak kontsultatu ditut artxibategi batzuetan. Hauek dira: AATP (Archivo de la Audiencia Territorial de Pamplona); A.G.N. (Archivo General de Navarra); A.M.Tu. (Archivo Municipal de Tudela); A.M.Ta. (Archivo Municipal de Tafalla); A.H.N. (Archivo Histórico Nacional); AHPCE (Archivo Histórico del PCE). Azken honetako datuak begiratu ahal izan nituen Angel Pascual Bonis-en eske.
- (2) Maila hauek zer ala nolako konpromesu gradu edo zer funtzioak zituzten ez da zehazki agertzen informe honetan. Ikus: Largo Caballero Fco.- "Escritos de la República". Oharrak eta aurreko ikasketa Santos Juliak eginda. 123-124 orri. P.Iglesias Arg.Ma.L 985.
- (3) AHPCE Mi. Rollo VIII nº 12.
- (4) Urriak 11 arte, geltokia zabaltzeko obretan zeuden langileak eta urtzagintzako langileak paroen egon ziren. Urriak 10 arte, Portland lantegiko 350 langileak.
- (5) Grebalari hauek ziren: Etxagintzan 70; zerrategian (?); burdigintzan 10; 15 nekazari; 8 ileapantzaile; 10 jostuna. A.M.Ta. leg.893 Negociado de Reformas Sociales. Octubre 1934.
- (6) AATP. Juz. Aoiz. Leg. 196. Causa 132. Atxilotu zituzten 2 pertsona, gero libre utzi izan behar zituzten froga faltagatik. Modesto Urbiolak (1986), 1936-ko uztailan galdetu zuenean zergaitik atxilotu zituzten (gero fusilatuak izan ziren) Agoizko batzuk, erantzun hau jaso zuen: "1934-an Iratiko postuetan lehergailu batzuk jarri zituztelako".
- (7) Prentsako berriak ez daude oso garbi (zentsura jarrita zegoen), kontrako berriak azaltzen baitdira gertaera hori gertatutako orduz. Edozein moduz, urriak 6-an, larunbata, Iruña eta Gazteluko enparantza konkretuki, gabeko 10-etan iluna geratu zen. Une hori aprobe txatu behar zuten hamarreko pertsona batzuk hiriko lehu neuralgikoak kontrolatzeko. EPN 34.10.13
- (8) LVN 34.10.10
- (9) Datu hau H.A. egunkariak bakarrik ekartzen du. Gertaerak gertatu ziren Altsatsuko biztanle batzuk galerazi nahi izan zutenean Constantino Salinas medikuaren detentzioa. Bera PSOE-koa zen eta Diputazioko Gestorako presidentordea.

- (10) Pertsona hauek osatzen zuten komitea: Miguel Escobar, Juan Arrastia, José San Miguel, Justo Sánchez ta Jesús Monzón. Azken honengatik Iruñako Abogatuaren Kolegioa interesatu zen. H.A. 34.10.19.
- (11) A.M.Tu. Memoriales de Alcaldía. Octub. 1934, ta E.D. 34.10.16.
- (12) Ikus: Esparza J.M. "Un camino cortado. Tafalla 1900-1939". 188-195 orri. Elkar. Donostia 1985.
- (13) Orduztik S.Cristobal fuertea presondegi bezala jartzen da. Ofizialki emandako datuak hauek ziren: lehen aipatutako probintziatako 1500 atxiloturik (nahiz eta 1935-ko irailan erdia "bakarrik" izan). Urriak 7-rako Eibarreko 114 pertsona ekarri zituzten; 11-rako Bilboko 140 pertsona eta 15-rako beste 70 eibartar. Beranduago, beste herrialdeetako (Asturias, Cataluña, Madrid, e.a.) atxilotuak ekarri zituzten. Probintziako presondegian zeudenak kontutan izan behar dira ere.
- (14) Hauetako hauek: Cortes, Peralta, Villafranca, Fitero, Caparroso, Castejon, Funes, Marcilla, Fontellas, Azagra, Tafalla, S. Martín de Unx, Berbinzana, Cadreita, Buñuel, Caseda, S. Adrian, Carcar Tudelako PSOEko herriko etxea eta Circulo Mercantil e Industrial elkarte, Corella, Ablitas, Cabanillas, Fustiñana, Monteagudo, Murchante, Murillo el Cuende, Olite, e.a.
- (15) Hauen artean: Allo, Azagra, Caparroso, Corella, Dicastillo, Fitero, Falces, Larraga, Mendavia, Murillo el Cuende, S. Adrian, Sartaguda, Carcar, Alsasua, Cadreita, Lodosa, Olazagutía, Olite Peralta, Castejon, Buñuel, Berbinzana, Fontellas, Villafranca, Aibar, eta Valtierra. Beste gauzarengatik Goizuetako alkatea ta udaletxe honetako beste zinegotziari aurkeztutako dimisioa onartu zitzaizen, biak pnv-koak izanik.
- (16) Largo Ca. Fco. Ibid. 123-124 orri.
- (17) Del Rosal Amaro. "1934. El movimiento Revolucionario de Octubre" 238 orri. Akal argital. Ma.1983.
- (18) Ekainak 5-ean nekazari greba deklaratu zen 49 herrietan, propietateetan egindako kalteaz zenbait datu izanik. AHN Leg. 50 Esp. 12 Doc.2